

1863/2022 EBAZPENA, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESIko Neurologiako Osasun Atal Sanitarioko burua (Kanpo-kontsulten Arloa) hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearen otsailaren 18ko 131/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa bat egin zen Donostialdeko ESIko Neurologiako Osasun Atal Sanitarioko burua (Kanpo Kontsulten Arloa) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 21eko EHAAn 141 zk eta 2022ko abuztuaren 2ko BOEn 184 zk.

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun baliodunek epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 24an amaitu zen.

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearen abuztuaren 25eko 1747/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horrek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza ESIko Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Donostialdeko ESIko Neurologiako Osasun Atal Sanitarioko burua (Kanpo-kontsulten Arloa) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. Eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2022ko irailaren 27an

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria
ESTHER LITAGO SOLA.



DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA

LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO NEUROLOGIAKO OSASUN ATAL SANITARIOKO BURUA (KANPO-KONTSULTEN ARLOA) IZENEKO LANPOSTUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIAN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Javier RUIZ MARTINEZ

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO NEUROLOGIAKO OSASUN ATAL SANITARIOKO BURUA (KANPO-KONTSULTEN ARLOA) JIZENEKO LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Miren Idoia GURRUCHAGA ARRIOLA and.

Ordezkoa: Ana CALVO AGUIRRE and.

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Maria Teresa MARTINEZ ZABALETA and

Ordezkoa: Adolfo BEGUIRISTAIN GOMEZ jn.

Bigarren batzordekidea

Titularra: Adolfo LÓPEZ DE MUNAIN ARREGUI jn.

Ordezkoa: Elena ERRO AGUIRRE and.

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Gonzalo GONZALEZ CHINCHÓN jn.

Ordezkoa: Juan Carlos GARCÍA- MONCÓ CARRA jn.

Laugarren batzordekidea

Titularra: Ana Cristina PINEDO BROCHADO and.

Ordezkoa: D. Alfredo RODRIGUEZ –ANTIGÜEDAD ZARRANZ jn.

Idazkaria

Titularra : Esther LITAGO SOLA and.

Ordezkoa : Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.